

• E EUORÉGION EUROESKUALDEA EUORRREGIÓN

NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA

Akitania-Berria Euskadi Nafarroa, hiru eskualde, bi herrialde, lurralde bat: Euroeskualdearen garapen ekonomiko, sozial eta kulturala areagotuko duten proiektuak sustatzeko lankidetzaren esparru partekatu bat, mugaz gaindi, eskualde artean eta europar mailan.

Gure jomuga: herritarren egunerokoa errazteko xedez, Euroeskualdea hurbiltasuna eta distantzia bilduko dituen lurralde bihurtzea. Modu aktiboan esku hartzen dugu euren egungo eta etorkizuneko bizitza-baldintzak hobetzearen.

Gure zereginak: 3 ARDATZ ESTRATEGIKO



Partekatu

Euroeskualdeko hiritartasuna

Lurralde partekatu batekiko kideetasun sentimendu bat sortzea hizkuntzen ikaskuntza sustatuz, izapide administratiboak erraztuz, mugaz gaindiko mugikortasuna garatuz eta eskualdeko kulturen adierazpena eta hedapena sustatuz.

Gure desberdintasunak partekatzea, batzen gaituena partekatzea!



Berritu

Ezagutzaren ekonomia: berrikuntza eta lehiakortasuna

Enpresen artean lankidetzak giroa eta jakintza bateratzeko lankidetzak espazio bat sortzea: irakaskuntza, ikerketa eta berrikuntza-guneak, jarduteko gaitasuna: eragile ekonomikoak, industria eta merkataritza, eta ezagutzera ematea: informazioa, datuak eta jarduteko moduak partekatzea.

Hemen eta orain batera berrikuntzak burutzea gure lurraldearen etorkizunaren alde!



Kontserbatu

Lurralde jasangarria eta garraioa

Lurraldearen garapen iraunkorra sustatuz, baliabide bikainak dituen (itsasoa, errekek, basoak, mendia, lurzoru emankorrak...) ekosistema bat zaintzea, ekologiarekiko arduratsuak diren garraiobideen eta nekazaritzaren, energia berriktagarrien eta turismoaren sektoreetako sinergien artean lotura hobek sortzeki esker.

Gure ingurunea modu jasangarrian zaintzea eta garatzea!

Gure TRESNAK

Gure zereginak burutzeko zenbait proiektu abiarazten ditugu, batik bat enpleguaren, hizkuntzen ikaskuntzaren, mugaz gaindiko mugikortasunaren eta lanbide heziketaren alorretan.

Transfermuga 1&2

Mugaz gaindiko mugikortasuna sustatzea, garraiobide desberdinak erabiliz joan-etorriak optimizatzea ahalbidetzen duen onlineko tresna bati esker. Eskura dauden azpiegituren ahuleziak eta aukerak aztertuz, Euroeskualdeari bidaiarien nahiak hobeki ulertzea ahalbidetzen dion tresna bat da.

transfermuga.eu



Transfermuga

Empleo

Mugikortasun profesionala benetako erronka bat da Euroeskualdeko biztanleentzat eta lurraldearen dinamismoarentzat. Lan-zuzenbidea, fiskalitatea, gizarte-babesa, hemen bizi eta han lan egitea... Nola lortu daiteke hori? Empleo proiektuak galdera horiei guztiei erantzuten die, enplegu-bilaketa Euroeskualdearen perimetrora zabaltzearekin batera.

empleo-info.eu



Gobernantza eta estrategia

Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak ez du inolako erakunde, organismo, enpresa edo elkarteren izenean jarduten. Haiekin batera lankidetzak proiektu jakin batzuk abiarazten ditu edo bere plan estrategikoaren hiru ardatzekin zerikusia duten ekintzak sustatzen ditu.

Erakundea osatzen duten hiru eskualdeetan ordezkaritza paritarioa duten bi instantzia dauzka. Euroeskuakdeak: 18 kideko batzar bat eta 6 kideko batzar eragile bat. Hauek lehentasunak zehaztu eta estrategia eta plana balioztatzen dute. Presidentetzak bi urte irautean ditu eta eskualdeen artean txandakatuz egikaritzen da.

Data nagusiak

Euroeskualdearen eraikuntzan garrantzitsuak izan diren zenbait data, idazten ari den historia baten mugarriak...

1983

Pirinioetako Lan Komunitatearen sorrera, honako hauek barne hartu zituen: Akitania, Languedoc Roussillon eta Midi Pyrénées, Katalunia, Aragoi, Euskadi, Nafarroa eta Andorra.

1989

Funts erkide bat sortu zen mugaz gaindiko proiektuak finantzatzeko. Aldi berean, hitzarmen baten bidez Akitania eta Euskadiren arteko aldebiko lankidetzak abiarazi zen. 1992an, Nafarroa gehitu zitzaion eta hiru aldeko funts erkide bat sortu zen 1999. urtera arte.

2004

Nortasun juridiko propioa zuen tresna bat sortu zen: Akitania-Euskadi Plataforma Logistikoa, Ekonomia Intereseko Europako Talde (EIET) gisa, egoitza Donostian zuelarik.

2011

Akitania-Euskadi Lurralde Lankidetzarako Europar Taldea (LLET) sortu zen, egoitza Hendaian zuen.

2014

2014-2020 aldirako Euroeskualdeko plan estrategikoaren aurkezpena.

2016

Nafarroa Euroeskualdean txertatu zen, Akitania-Euskadi Euroeskualdearen Batzar Nagusiak 2016ko martxoaren 18an onartuta, eta 2017ko martxoaren 6an indarrean sartu zena.

2018

2014-2020 plan estrategikoaren eguneratzea.

Euroeskualdea zenbakitan*

Azalera km²-tan
101 678

Biztanleria
8 744 648

Dentsitatea/km²
86

Lanpostuak
3 541 000

Enpresak
486 176

Ikasleak
1 781 141

PPG (biztanleko)
28 400€

Langabezia-indizea %
10,5

Proiektu-deialdiak eta lankidetzak

Eskualdeko eragile desberdinen arteko harremanak sustatzeko asmoz, Euroeskualdeak dirulaguntzak ematen dizkie bere ardatz estrategikoetako gaiekin zerikusia duten proiektuei, eta baita lurraldearen lankidetzaz oztatzen duten egiturazko oztopo errepikakorren aurka bideratutako lankidetzari ere.

Proiektuen bi deialdi antolatzen ditu urtean, euroeskualdearen estrategian finkatutako lehentasunetan ardaztuak. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus euroregion-naen.eu

Tresna BERRIAK

Interreg
POCTEFA



Transfermuga-rrekin

Transfermuga-rrekin proiektuak hasierako **Transfermuga** proiektua berriz landu eta hobetu nahi du, **Elgarrekin** ekimenaren barruan txertatua dagoena, eta 1,2 milioi biztanleko mugaz gaindiko espazio batean mugikortasun iraunkorraren ardatza egituratzaile bat bermatu nahi duena. Bidaiarien beharretara egokitutako eskaintza bat garatzeko eta azpiegiturak hobetzeko xedea duen proiektu honen elementu nagusiak intermodalitatea eta multimodalitatea dira.



Forma NAEN

Prestakuntza; bai ezagutza gisa ulertuta, lehenengo fasean, eta bai gauzatze-gaitasun gisa ulertuta, bigarren fasean. Prestakuntza **Forma NAEN** proiektuko estrategiaren ardatza da, zeinaren xedea, epe luzera, Euroeskualdean kontratazio-ahalmena duten sektoreen uztartze profesionala den, batik bat, automobilgintzaren sektorearena. Mugaren bi aldeetako langileek Euroeskualdea aukeren eta mugikortasun profesionalen espazio gisa ikus dezaten lortu nahi du.



COMPET'plus

Mugaz gaindiko proiektu honen elementu garrantzitsuenak enpresen berrikuntza eta lehiakortasuna da, eta **COMPETITIV'eko** proiektuak burututako lana hartu du abiapuntutzat. Hiru lurraldeetako sektore bateratuen artean lankidetzaz harremanak areagotu nahi ditu proiektu honek, horretarako fluxu-ekonomikoak aztertuz, balio-kateak diseinatzuz, kate-maila defizitarioak identifikatuz eta eragileekin lan eginez, hiru eskualde hauetan bai enpresentzat bai bertako biztanleria aktiboarentzat eremu dinamiko bat eta aukera ekonomikoak dituen eremu sortu ahal izateko, gabeziak osatuz eta aukerak eta beharrezko lan-profilak identifikatuz.



NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARRA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA

18 rue Leku Eder,
64700 Hendaye, France

euroregion-naen.eu



LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea
AECT Eurorregión Aquitania-Euskadi-Navarra
GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre

* Euroeskualdea zenbakitan, 2018